Alcalde - Alkatea

D. Miguel de los Toyos Nazabal jauna.

Tenientes de Alcalde - Alkate Ordeak

D. Alberto Albistegui Zamacola jauna.

D. Pedro Escribano Ruiz de la Torre jauna.

Dña. Ana Telleria Echeverria andrea.

D. Arcadio Benitez Dávila jauna.

D. Francisco Javier Lejardi Galarraga jauna.

Concejales - Zinegotziak

Dña. Idoya Sarasqueta Aramburu andrea.

Dña. Patricia Arrizabalaga Larrañaga andrea.

Dña. Maria Isabel Larrauri Arriaga andrea.

D. Jon Iraola Iriondo jauna.

Dña. Eva Juez Garmendia andrea.

D. Jaime López de Guereñu Urisabel jauna.

Dña. Maria Mercedes Garate Larrañaga andrea.

D. Josu Mendicute Rodríguez jauna.

Dña. Maria Elena Ibañez Anuncibay andrea.

Dña. Igone Lamarain Cobo andrea.

D. Josu Cristobal Churruca jauna.

Dña. Leire Abanzabalegui Aranguren andrea.

D. Gorka Errasti Bernedo jauna.

Dña. Ana Francisca Astigarraga Arrizabalaga andrea.

Dña. Maria Jesús Aguirre Unceta Andrea.

Secretaria General - Idazkari Orokorra

Dña. Arantzazu Echániz Petralanda andrea.

Eibarko hirian, bi mila eta hamaseiko ekainaren hamahiruan, arratsaldeko zazpiak izanik, Udal Batzarra bildu zen bilera berezian, Udaletxeko Batzar Aretoan, goian aipaturiko jaun-andreek osatua.

En la Ciudad de Eibar, a trece de junio de dos mil dieciséis y siendo las diecinueve horas, se reunió en sesión extraordinaria el Pleno Municipal, en el Salón de Plenos de la Casa Consistorial, formado por los/-as señores/as anteriormente mencionados/as.

Alkate jaunak bilerari hasiera eman dio eta eguneko aztergaiaren atal bakarra irakurri da.

El Sr. Alcalde declara abierta la sesión y se procede a la lectura del primer punto del Orden del Día.

1. ATALA

PUNTO 1º

Erakunde, Lurralde eta Lege gaietarako Lan Batzordetik diktamena:

Dictamen de la Comisión de Trabajo de Asuntos Institucionales, Jurídicos y Territoriales:

Udal Ordenantza aldatzea, herriko kaleen erabilerari eta okupazioari buruzkoa: tabernetako mahaiak eta aulkiak, salgaiak edo beste elementu batzuk jartzea.

Modificación de la ordenanza municipal sobre el uso y ocupación de la vía pública con mesas y sillas, productos en venta u otros elementos auxiliares.

Honako diktamen hau irakurri da:

Se da lectura al siguiente dictamen:

“Hirigintza, Obra eta Ingurumen Lan Batzordeak egin duen proposamenaren berri eman da, gaur egun indarrean dagoen Ordenantzaren testua aldatzekoa, hain zuzen ere 4., 5., 8., 9. eta 11. artikuluei dagozkien aldaketak.

“Se da cuenta de la propuesta de la Comisión de Trabajo de Urbanismo, Obras y Medio Ambiente de modificación del texto actualmente vigente de la Ordenanza de referencia, en concreto modificaciones que afectan a los artículos 4, 5, 8, 9 y 11.

Elkarri iritziak eman ondoren; De los Toyos Nazabal, Telleria Echeverria, Escribano Ruiz de la Torre, Sarasqueta Aramburu eta Aguirre Unceta jaun-andreen baiezko boto-ekin eta Juez Garmendia, Mendicute Rodríguez, Abanzabalegui Aranguren eta Cristobal Churruca jaun-andreen abstentzioekin,

Tras un cambio de impresiones, con los votos favorables de los Sres y Sras. De los Toyos Nazabal, Telleria Echeverria, Escribano Ruiz de la Torre, Sarasqueta Aramburu y Aguirre Unceta, y las abstenciones de los Sres. y Sras. Juez Garmendia, Mendicute Rodríguez, Abanzabalegui Aranguren y Cristobal Churruca.

Udal Osoko bilkurari, erabaki hau hartzeko proposamena egiten zaio:

Se propone al Pleno Municipal, adopte los siguientes acuerdos:

Aurrena: Hasierako onespena ematea "Udal Ordenantza, herriko kaleen erabilerari eta okupazioari buruzkoa: tabernetako mahaiak eta aulkiak jartzea, salgaiak edo beste elementu batzuk jartzea." agiriaren Aldaketari.

Primero: Aprobar inicialmente la Modificación de la Ordenanza muncipal sobre el uso y ocupación de la vía pública con mesas y sillas, productos en venta u otros elementos auxiliares.

Bigarrena: Toki Araubidearen Oinarriak erregulatzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluak ezarritakoaren arabera, hartutako erabakia eta horren harira bideratutako espedientea jendaurrean uzten dira 30 lanegun edo astegunez, erabaki honi dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta hurrengo lanegunetik kontatuta, horrela, bidezkoak irizten diren erreklamazioak eta alegazioak aurkeztu ahal daitezen.

Segundo: En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 49 de la Ley 7/1985 de 2 de abril, reguladora de Bases de Régimen Local, el acuerdo adoptado y el expediente al efecto instruido, se someten a información pública por un periodo de 30 días hábiles contados a partir del siguiente hábil al de la inserción del anuncio del acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, a fin de que puedan presentarse las reclamaciones y alegaciones que se estimen oportunas.

Hirugarrena: Esandako epe horretan erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztuko ez balitz, ordura arte hasierako onespena baino ez zuen Ordenantza behin betiko onartutzat hartuko da, horren inguruan Udalbatzak berariazko beste akordio bat hartzeke."

Tercero: En el caso de que en el plazo señalado no se presente ninguna reclamación o sugerencia, se entenderá definitivamente aprobada la Ordenanza hasta entonces inicialmente aprobada, sin que por el Ayuntamiento Pleno deba adoptarse al efecto un nuevo acuerdo expreso."

Gaiari heldu aurretik, Cristobal jaunak adierazi du bera ez zela joan Batzordearen bilerara, eta haren ordez Errazti jauna joan zela.
Errorearen berri hartu da, eta zuzendu egin da.

Como cuestión previa indica el señor Cristobal que él no acudió a la sesión de la Comisión, y que en su lugar lo hizo el señor Errasti.
Se toma razón del error y se procede a su corrección.

Lehenengo, Lamarain andreak hartu du hitza, eta esan du hilabeteak daroatzatela Ordenantza horrekin, eta argi dutela buelta gehiago eman beharko zaiola horri etorkizunean. Elkarlana zabalagoa izan behar du —gehitu du—, eta Elkartekoak ez diren ostalariekin ere egin behar da, eta, nahiz eta elkarteak eratzeko zenbait saiakerak aurrera egin ez duten, 130 ostalaritik gora badira, ezin da lan hori egin bakarrik 5 ostalarirekin.
Amaitzeko, esan du esfortzua egin beharko litzatekeela ostalari gehiagok parte

Interviene en primer lugar la Lamarain quien afirma que llevan meses con esta Ordenanza, y que tienen claro que habrá que darle más vueltas en el futuro. Añade que el trabajo en común debe de ser más amplio y hacerlo también con otros hosteleros que no son de la Asociación, y que aunque ha habido intentos de asociación que no han prosperado, si son más de 130 los hosteleros, el trabajo no se puede hacer sólo con 5 hosteleros.
Finaliza afirmando que se debería de hacer un esfuerzo para que participen más

hartu dezaten, eta horregatik bere taldea abstenitu egingo dela.

Ondoren, Mendicute jaunak hartu du hitza. Bere ustez, horrelako gaiak proposatzen direnean —esan du—, komenigarria da pentsatzea zergatik egiten diren gauzak, benetan onak diren gauzak egitea erreza ez dela jakinda eta hortik abiatuta, izan ere sormen handirik ez dutelako, euren giroan eroso bizi direlako, sarritan ez dutelako zalantzan jartzen zer diren, zenbaitetan pentsatu baino gehiago hitz egiten delako, eta, areago, bihar gauzak ezberdinak izango direla jakin arren, ordura arte itxaroten delako zer edo zer egiteko.
Susmoa du —gehitu du— udal honetan horrela ari direla kudeatzen gauzak, eta gai hau beste hainbat konturen arteko bat baino ez da.
Galdetuz gero zergatik eta zertarako aldatu den Ordenantza —segitu du—, seguruenik erantzungo litzateke zenbait ostalarik hala eskatu dutelako egin dela, eskatzeari laga diezaioten; eta horrela lasaitu daitezen lain ematen zaie, baina gehiegi eman barik, elkarbizitza-arazorik sortu ez dezaten.

Euren ustez, askoz hausnarketa sakonagoa egin beharra dago gai honetaz —gehitu du—, Plan Estrategikoan, bigarren

hosteleros; y que por todo ello, su Grupo se va a abstener.

Interviene a continuación el señor Mendicute quien afirma que cuando se plantean temas como éste, cree que es conveniente ponerse a pensar porqué se hacen las cosas, partiendo desde el punto de que hacer cosas realmente buenas no es fácil, porque no son creativos, porque viven cómodos en su entorno, porque muchas veces no se cuestionan lo que son, porque a veces se habla más de lo que se piensa, e incluso, porque sabiendo que las cosas van a ser diferentes mañana, se espera hasta entonces para hacer algo.
Añade que tienen la sensación que en este Ayuntamiento se van así gestionando las cosas, siendo este tema una cuestión más.
Si se pregunta por qué y para qué la modificación de la Ordenanza, prosigue, la respuesta probablemente será porque así lo han solicitado unos hosteleros, y para que dejen de pedir; y entonces lo que se hace es darle lo suficiente para que se calmen, pero sin darles demasiado, para que no creen problemas de convivencia.
Añade que consideran que hay que hacer una reflexión más profunda en este tema

erronkan, aipatzen da “jarduera ekonomikoak birkokatzea”, eta, laugarren erronkan, “jarduera ekonomikoa sendotzea”, eta, 4.2 puntuan, “sektore estrategikoen aldeko apustua”, eta Planak jarduketa ildo bat dauka Eibarren kudeaketa turistikoa aipatzen duena, eta “Eibarren lankidetzan eta berrikuntzan oinarritutako kudeaketa turistikoa sustatzea, sektoreko agenteen artean eta horien eta ostalaritzaren artean sinergiak sortzeko eta proiektuak eta ekimen komunak garatzeko”.

Bestetik —esan du geroago—, Hirigintza Batzordera joan ziren ostalariek (Talde guztiek ezetza eman zioten Ordenantza-proposamen batekin, hasieran, eta oraingoaren gaineko aldaketekin, geroago) Ordenantzan aldaketak egiteko ez ezik, Udalak lidergoz jardun dezala ere eskatzen zuten, sektorean kohesioa bilatzeko eta horren bidez gehienak elkarteetan biltzeko bide emateko, ez Udalari kontrajarri lekizkiokeen ekimenak proposatzeko, baizik eta Plan Estrategikoan markatutako ildoari jarraitzeko.

Euren ustez, eskaera hori egon delako egin da proposamena —jarraitu du—, eta era batean edo bestean erantzun behar zaie, baina ez da sakonki hausnartu zer lortu nahi den, ez eta nola txertatu behar

y que el Plan Estratégico en su reto segundo habla de “reposicionar las actividades económicas”, y en el cuarto de “fortalecimiento de la actividad económica”, y en su punto 4.2 de “apuesta por los sectores estratégicos” que tiene una línea de actuación que habla de la gestión turística de Eibar y de “impulsar una gestión turística en Eibar basada en la cooperación y la innovación para generar sinergias, desarrollar proyectos e iniciativas comunes entre los agentes del sector, y entre ellos y la hostelería”.

Por otra parte, dice más adelante, los hosteleros que asistieron a la Comisión de Urbanismo, primero, con una propuesta de Ordenanza que fue rechazada por todos, y posteriormente, con cambios sobre la actual; no sólo demandaban modificaciones de la Ordenanza; sino que también que el Ayuntamiento ejerciera un liderazgo, buscando una cohesión en el sector que permitiera que mayoritariamente se asociasen, no para plantear iniciativas que puedan entrar en contradicción con el Ayuntamiento; sino para ir en la línea indicada del Plan Estratégico.

Les parece, prosigue, que se ha hecho esto porque ha habido esa demanda, y hay que responderles de alguna manera; pero que no ha habido una reflexión pro-

diren terrazak lortu nahi den hiri-ereduaren barruan.

Hausnarketa hori egitean —gehitu du— kontuan hartu beharrekoak dira ohiturak europartzeak eragindako gizarte-aldaketak, tabakoaren kontrako legeria berria eta adikzioen kontrako legea, horiek terraza-zerbitzuen eskaera handitu baitute, baina, aldi berean, auzokideekiko elkarbizitza-arazoak ere eragiten baitituzte.

Testuinguru horretan egin da aldaketa —jarraitu du—; eta kontua ez da ordenantzak onartu eta kito: betearazi ere egin behar dira.

Ostalariek malgutasun handiagoa eskatu zuten ordutegietan —gehitu du—; baina, aldi berean, hori arautzeko ere eskatu zuten, eta araututakoa bete dadila, izan ere legean jasota ez dauden baimenek segurtasun juridiko eza sortzen dute.

Amaitzeko, esan du bere taldea ez dagoela aldaketa horien aurka, baina uste duela hausnarketa sakonagoa egin behar dela, eta horregatik abstenitu egingo dela.

funda sobre qué es lo que se desea, y sobre cómo encajar las terrazas en el modelo de ciudad que se desea.

Añade que esa reflexión hay que hacerla teniendo en cuenta los cambios sociales en la europeización de las costumbres, la nueva legislación antitabaco, y la ley antiadicciones, que aumentan la demanda del servicio de terrazas pero que también crean problemas de convivencia con los vecinos.

Esta modificación, continúa, se ha dado en este contexto y no sólo se trata de aprobar ordenanzas; sino que hay que hacerlas cumplir.

Añade que los hosteleros solicitaron mayor flexibilidad en cuanto a los horarios; pero que a su vez, también que se reglamenten, y que lo reglamentado se cumpla, pues las autorizaciones al margen de la ley crean inseguridad jurídica.

Finaliza afirmando que su Grupo no está en contra de estas modificaciones, pero que piensa que a largo plazo hay que hacer una reflexión más profunda y que por tanto se abstendrá.

Ondoren, Aguirre andreak hitza hartu eta esan du bera taldea ere abstenitu egingo dela; izan ere, edukiarekin ados egon balitezke ere, proposamenak ez du Eibarko

Interviene a continuación la señora Aguirre quien afirma que su Grupo también se abstiene porque aunque con el contenido pueden estar de acuerdo; la propuesta no

ostalari gehienen babesa, eta izan litekeela lagun-talde baten kontua, erdialdekoak gainera, horretan ados jarri direnak, eta bere Taldeak nahiko luke ostalari gehienek sinatutako proposamena izatea.

está avalada por la mayoría de la hostelería eibarresa, y que puede ser un grupo de amiguetes, además de la zona centro, que se ponen de acuerdo, cuando lo que les gustaría es que fuera una propuesta rubricada por la mayoría de los hosteleros.

Ondoren, Telleria andreak hartu du hitza, eta esan du parte-hartzeari dagokionez jakin badakiela hori sustatu duten ostalariak saiatu direla albait establezimendu gehien sartzen barruan.

Udalak —gehitu du— ahal izan duen azpiegitura eskaini die gainerakoekin berba egin ahal izateko; beraz, ahalegina eginda dago, bere ustez, eta ezin da inor behartu parte hartzera.

Edozelan ere —adierazi du—, bada alegazioak aurkezteko epe bat, eta parte hartu ezin izan dutenek edo nahi izan ez dutenek, parte har dezakete epe horretan.

Egin nahi izan dena ostalari talde bat kontentatzen saiatzea izan delako iritziarekin —segitu du— bera ez dator bat; izan ere Udalak zuen kezka batek bultzatuta hasi da prozesua, aurreko testuarekin ez baitzeuden gustura, ez Udala, ez ostalariak, eta gainera elkarbizitza arazo bat ari baitzen sortzen hirian.

A continuación interviene la señora Telleria quien afirma que en cuanto a la participación, le consta que los hosteleros que han promovido esto, han intentado involucrar al máximo de establecimientos.

El ayuntamiento, añade, les ha prestado la infraestructura que ha podido para que hablasen con el resto, por lo que cree que el esfuerzo está hecho y que a nadie se le puede obligar a participar.

Indica que en cualquier caso, hay un plazo de alegaciones y quien no haya podido, o no haya querido participar, lo puede hacer en este plazo.

En cuanto a la consideración de que lo que se ha intentado es contentar a un grupo de hosteleros, prosigue, ella piensa que no es así, ya que este proceso se inicia por una preocupación del ayuntamiento, pues el texto anterior no satisfacía ni al Ayuntamiento, ni a los hosteleros, y estaba generando además un problema de convivencia en la Ciudad.

Bukatzeko, esan du ostalarientzat onuragarria den Ordenantza ekarri dutela proposatutako aldaketek, eta hori ez dela txarra, sektore horrek ere enplegua sortzen baitu, eta aldi berean ematen dituela hiritarren eta ostalarien arteko elkarbizitza albait onena izateko tresnak .

Finaliza afirmando que los cambios propuestos dan como resultado una Ordenanza que beneficia a los hosteleros, lo cual no es malo pues es un sector que también crea empleo, a la par que da herramientas para que la convivencia entre ciudadanos y hosteleros sea la mejor posible.

Ondoren, Alkate jaunak hitza hartu, eta esan du batzuetan egoeren sorburura joan beharra dagoela horiek ulertuko badira.

Interviene el señor Alcalde quien afirma que a veces hay que ir al origen de las situaciones para intentar entenderlas.

Udalak bazeukan Ordenantza bat, onartu zena orain dela ez urte asko, —jarraitu du—; onartu aurretik, ostalariei aukera eman zitzaien ekarpenak egiteko, baina ez zen ekarpen bakar bat bera ere iritsi, eta, horregatik, planteatu bezala onartu zen. Geroago, denbora pasa ahala, ostalariak konturatu ziren ez zutela barneratuta zer zekarren Ordenantzak, eta arazoak aurkitu zituzten ordura arte egiten ari zirenaren eta egin behar zutenaren artean; orduantxe saiakera egin zen ordenantza berri egiteko, parte-hartzea eta hausnarketa zutabe izango zituena, nahiz eta hausnarketa ez izan Mendicute jaunak nahiko lukeen bezain sakona.

El Ayuntamiento tenía una Ordenanza aprobada no hace muchos años, prosigue, se les dio antes de su aprobación a los hosteleros la posibilidad de que hicieran aportaciones a la misma; pero no llegó ni una sola aportación, por lo que se aprobó tal como se había planteado. Luego, con el tiempo, los hosteleros se dieron cuenta que no habían interiorizado lo que suponía la Ordenanza, y se encontraron con problemas entre lo que estaban haciendo y lo que tenían que hacer, y es cuando se intentó hacer una ordenanza nueva, en la que el pilar primero fuera la participación, y el segundo la reflexión; que quizá no ha sido tan profunda como le hubiera gustado al señor Mendicute, pero que ha habido.

Ostalariek duten ordezkari asoziatiboaren bidez (hau da, Gipuzkoako Ostalaritza Elkartea), albait ostalari gehienengana heltzen saiatu dira —esan du gero—; eta ostalariren batek kexatzen bada parte hartu ezin izan duelako, helarazi diezaiotela kexa, baina ahalegin handia egin dela parte hartu nahi duten ostalari guztiek parte hartu ahal izan dezatela.

Dice más adelante que con el interlocutor asociativo que tienen los hosteleros, que es la Asociación Guipuzcoana de Hostelería, se ha intentado llegar al máximo de hosteleros posible, que si hay queja de algún hostelero por no haber podido participar, que se le haga llegar la queja; pero que el esfuerzo básico ha sido para que todo hostelero que desee participar, participe.

Udalak ordezkari jakin batzuekin lan egin ohi duen arren —gehitu du—, ahalegina egin da gainerako ostalariei helarazteko haiekin lantzen ari zirena.

Añade que aunque hay unos interlocutores con los que el Ayuntamiento habitualmente trabaja, ha habido el esfuerzo de intentar trasladar lo que se estaba trabajando al resto de hosteleros.

Berak konpromisoa hartzen du —segitu du— Ordenantzari hasierako onespena eman ondoren Udalak bilera bat antolatu dezan Eibarko ostalariekin eta Ordenantza azaldu dakien alegazioak egin ahal izateko.

Dice más adelante que él se compromete a que una vez aprobaba inicialmente la Ordenanza, el Ayuntamiento organice una reunión con la hostelería de Eibar, y se le explique la misma, para que se puedan hacer alegaciones.

Zertarako egiten den galderari buruz —jarraitu du—, esan beharrekoa da lehenik eta behin saiatu direla ostalariek duten bidezko interesa, baina, aldi berean, hirigintza-arloan hiriak duen interes orokorrari erantzuteko ere egin dela, baita terrazaz gozatu nahi ez baina hiriaz bai gozatu nahi duten herritarren bidezko interesa ere.

En cuanto al para qué, prosigue, hay que decir que en primer lugar se intenta satisfacer el interés legítimo que pueden tener los hosteleros, pero que también es para satisfacer el interés general de la ciudad en cuanto al urbanismo, así como satisfacer el interés legítimo del vecino que quizá no quiera disfrutar de la terraza y sí de la Ciudad.

Interes horien guztien arteko oreka bilatzea —gehitu du— ez da ostalariari esatea zer edo zer ematen zaiola gustura gera dadin,

Añade que la búsqueda de equilibrio de estos intereses no es decirle al hostelero

baizik eta aitortzea bateragarrien izan daitezkeen kontuak.

que se le da algo para que quede satisfecho, sino reconocer las cuestiones que pueden encajar mejor.

Plan Estrategikoak jasotzen duen bezala —esan du—, ostalaritza funtsezko jarduera da hiriaren garapen turistikorako; gaur egun, horrela da, eta horregatik ari dira hori lantzen, eta Ordenantza hau prozesu garrantzitsua da horretarako oinarriak ezarri ahal izateko.

Dice más adelante que tal como recoge el Plan Estratégico, la hostelería es una actividad clave dentro del desarrollo turístico de la ciudad, y que esto lo es ya, por lo que se está trabajando en ello, siendo esta Ordenanza un proceso importante para intentar sentar unas bases.

Amaitzeko, esan du uste duela proposamenarekin oreka lortzen dela ostalarien, hirigintzaren eta herritarren artean, eta hortik aurrera norbaitek parte hartu nahi badu egin dezala, zenbat eta gehiagok parte hartu orduan eta hobea izango da-eta denentzat.

Finaliza afirmando que cree que con esta propuesta se da el equilibrio entre hosteleros, urbanismo y ciudadanía, y que a partir de ahí; si alguien desea participar, que lo haga, pues cuanto más participen, mejor para todos.

Lamarain andreak hitza hartu du berriro, eta esan du bere taldea ados dagoela oreka bilatze horrekin, zenbat eta ostalari gehiagok parte hartu hobe izango delako kontuarekin, baita bilera irekia egitearekin ere; baina jakin nahi luke zergatik ez den egin bilera Ordenantza Osoko Bilkurara ekarri aurretik.

Interviene de nuevo la señora Lamarain quien afirma que su Grupo está de acuerdo en buscar el equilibrio, y que también en que cuantos más hosteleros participen mejor, así como en que se haga una reunión abierta, pero que se pregunta por qué no se ha hecho esa reunión antes de traer aquí la Ordenanza.

Alkate jaunak erantzun du ostalariek berek zenbait deialdi egin zutela.

Indica el señor Alcalde que los propios hosteleros hicieron varias convocatorias.

Lamarain andreak esan du Udalak egin behar duela ahalegin hori, jakina baita gatazka dagoela ostalarien artean eta ez direla gauza ados jartzeko eta bilera bat egiteko elkarrekin.

Afirma la señora Lamarain que puesto que ya se sabe que hay conflicto entre los hosteleros, que no son capaces de llegar a un acuerdo y de reunirse, es el Ayuntamiento el que tiene que hacer un esfuerzo.

Alkate jaunak erantzun du halaxe egingo zukeela lehenago proposatu izan balitz, eta horren proba dela hementxe bertan proposatu duela.

Contesta el señor Alcalde que si se hubiera propuesto antes, lo hubiera hecho, y que prueba de ello es que lo ha propuesto aquí mismo.

Lamarain andreak erantzun du Batzordean esana zela ez zirudiela logiko bakarrik lauzpabost ostalariri entzutea, Eibar osoko ostalarien ordezkagarri izan barik erdialdekoena baino ez dira eta.

Afirma la señora Lamarain que en Comisión ya se dijo que no parecía lógico escuchar sólo a cuatro o cinco hosteleros porque no son representativos de todo Eibar, pues representan sólo a la hostelería del centro.

Benítez jaunak hitza hartu, eta esan du zenbait taldek parte hartze ez zutela konturatu zirenean gaia gelditu egin zela eta elkarteei deitu zietela, eta horiek ekarpen berriak ekarri zituztela.

Interviene el señor Benítez, quien afirma que cuando se percataron que había grupos que no participaban, se paralizó el tema y se llamó a las asociaciones, que volvieron con nuevas aportaciones.

Mendicute jaunak hitza eskatu, eta azaldu du berak ez duela esan (eta esan badu ez dela hori izan bere asmoa) ostalari talde bat gogobetetzen saiatu direnik, baizik

Pide la palabra el señor Mendicute para aclarar que él no ha dicho, y que si lo ha dicho no ha sido su intención, que de lo que se ha tratado es de contentar a un

gehienez ere haiek lasaitzea edo haien eskaerak leuntzea.

grupo de hosteleros; sino de, en todo caso, apaciguar o calmar su pretensiones.

Bestetik —gehitu du—, ez du zalantzan jartzen ostalaritza Eibarren erakarpen turistikoaren parte direla, baina oraindik ez da egiten ari Plan Estrategikoak dioena, berak zalantzan jartzen baitu sustatzen ari denik "Eibarren lankidetzan eta berrikuntzan oinarritutako kudeaketa turistikoa, sinergiak sortzeko eta proiektuak eta ekimen komunak garatzeko"

Por otra parte, añade, que la hostelería sea parte del atractivo turístico de Eibar, no lo pone en duda; pero lo que dice el Plan estratégico todavía no se está haciendo, ya que pone en duda que se esté impulsando "una gestión turística del destino de Eibar basada en la cooperación e innovación para generar sinergias, y desarrollar proyectos e iniciativas conjuntas".

Aguirre andreak esan du —sektorean talde-sena ez egoteari dagokionez— apustu bat izango litzatekeela, eta orain aukera ona izango litzatekeela haiei eskatzeko eta Ordenantza berri bat onartu dadin ia baldintza moduan jartzeko apustu orokorra izatea; hau da, hasiera batean ostalari gehienek izenpetzen ez badute gaia ez onartzea.

Amaitzeko, esan du berak eskatuko lukeela bilatzeko asoziazionismoa ia exigitzeko modu bat, hortik aurrera gauzak askoz hobeto joan litezke eta.

Afirma la señora Aguirre que en cuanto a la falta de sentido de grupo del sector, sería una apuesta y la oportunidad ahora de pedirles y casi condicionar la aceptación de una nueva Ordenanza a que sea una apuesta general, esto es; que mientras que no haya una rúbrica en principio mayoritaria de los hosteleros, el tema no tenga refrendo.

Concluye que apelaría a buscar una forma de exigencia casi, de asociacionismo porque a partir de ahí es cuando las cosas podrían marchar mucho mejor.

Alkate jaunak esan du Udalak eskatu diela elkarteetan antolatzeko eta ordezkaritza korporatibo bat edukitzeko, beste sektore

Afirma el señor Alcalde que el Ayuntamiento ha pedido que se asocien y tengan una interlocución corporativa, como lo ha

batzuei ere eskatu dien moduan, baina ezin duela inor behartu elkarteetan antolatzera, areago Udalak onartzen duelako Ordenantza, eta ez ostalariek.

pedido a otros sectores, pero que no se puede obligar a nadie a que se asocie, porque además, la Ordenanza la aprueba el Ayuntamiento y no los hosteleros.

Diktamena botaziora eraman da, eta onartu egin da emaitza hauekin:

Sometido a votación el dictamen, se aprueba con el siguiente resultado:

Baiezko botoak: Alkatea, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga eta Iraola Iriondo (PSE-EE).

Votos afirmativos: Alcalde, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga y Iraola Iriondo (PSE-EE).

Ez dago ezezko botorik.

Votos negativos: ninguno.

Abstentzioak: Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU), Juez Garmendia, López de Guereñu urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), Aguirre Unceta (IRABAZI).

Abstenciones: Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU), Juez Garmendia, López de Guereñu urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), Aguirre Unceta (IRABAZI).

Erakunde, Lurralde eta Lege gaietarako Lan Batzordetik diktamena:

Dictamen de la Comisión de Trabajo de Asuntos Institucionales, Jurídicos y Territoriales:

IV. Berdintasun Plana (2016-2019).

IV Plan de Igualdad.2016-2019

Honako diktamen hau irakurri da:

“Berdintasunerako Batzorde Aholkulariak Eibarko Udalaren IV. Berdintasun Plana aurkeztu du, 2016-2019 aldirakoa.

Aldi berean, Kontu-hartzaile jaunak eta Udal Idazkariak horren inguruan egin dituzten txostenen berri eman da.

Elkarri iritziak eman ondoren; De los Toyos Nazabal, Telleria Echeverria, Escribano Ruiz de la Torre, Sarasqueta Aramburu, Abanzabalegui Aranguren, Cristobal Churruca eta Aguirre Unceta jaun-andreen baiezko botoekin eta Juez Garmendia eta Mendicute Rodríguez jaun-andreen abstentzioekin; Udalbatzari proposamen hau egiten zaio:

2016-2019 aldirako IV. Berdintasun Plana onartzea.”

Aurrenik Abanzabalegui andreak hartu du hitza. Esaten du bere Taldeak, Batzordean egin zuen bezala, Berdintasun Plan honen aldeko botoa emango duela. Baina, aldi berean, bere Taldeko kideek oinarrizkotzat ikusten dutena berdintasunaren norantzan egindako lana dela, eta berriro ere, egun

Se da lectura al siguiente dictamen:

“Se presenta por la Comisión Asesora de Igualdad, el IV Plan de Igualdad del Ayuntamiento de Eibar para el período 2016-2019.

Se da cuenta asimismo de los informes emitidos por la Secretaria Municipal e Interventor de Fondos.

Tras un cambio de impresiones, con los votos favorables de los Sres y Sras. Toyos Nazabal, Telleria Echeverria, Escribano Ruiz de la Torre, Sarasqueta Aramburu, Abanzabalegui Aranguren y Cristobal Churruca, Aguirre Unceta, y las abstenciones de la Sra. Juez Garmendia y Sr. Mendicute Rodríguez, se propone al Pleno Municipal:

Aprobar el IV Plan de Igualdad para el período 2016-2019.”

Interviene en primer lugar la señora Abanzabalegui quien afirma que su Grupo, tal como hizo en la Comisión, votará a favor de este Plan de Igualdad. Pero asimismo lo que los integrantes de su Grupo ven fundamental es el trabajo en la dirección de la igualdad, y que para evitar que vuel-

hauetan gertatu diren bezalako gauzak berriro ez gertatzeko, mezu feminaziak zeuzkaten kartelak, garrantzizkoa dela Plan hau burutzea, eta bere sasoian berdintasunaren alorreko batzorde berezi bat sortzea eskatu zuten bezala, garrantzizkotzat ikusten dutela baita berdintasun ekintza Gizartekintzatik ateratzea eta gai hori gai transbertsaltzat lantzea.

van a repetirse hechos como el de los carteles que estos días han aparecido con mensajes feminazis, es importante que se lleve a cabo este Plan, y que, al igual que en su día plantearon una comisión propia de igualdad, ven importante el sacar la acción de igualdad de Gizartekintza, y trabajar el tema como un tema transversal.

Ondoren Juez andreak hartu du hitza. Hasteko esaten du bere Taldea Batzordean abstenitu egin zela argitu beharra daukala, Idazkariak egindako ñabardurak eta iradokizunak ez zituelako garbi, baina gaiaren inguruan Idazkariarekin eta Batzordeko Idazkariarekin, Maria Jose Lasa, hitz egin ondoren, gaia argitu dela eta aldeko botoa emango dutela; eta denek zoriontzeko modukoa dela Plana aho batez onartzea.

Habla a continuación la señora Juez quien comienza diciendo que tiene que aclarar que su Grupo en la comisión se abstuvo, pues no tenía claras las puntualizaciones y sugerencias realizadas por la Secretaria, pero que una vez hablado el tema con la Secretaria y con la Técnica, Maria Jose Lasa, se ha aclarado el tema, y votarán a favor, y que será de felicitarse el que el Plan se apruebe por unanimidad.

Juez andreak jarraitu du esaten gauza asko egin direla eta horrela jarraitu behar dela, baina hala ere, errepaso txiki bat egin nahi duela.

Continúa diciendo que se han hecho muchas cosas, y que ha de continuarse así pero que le gustaría hacer un pequeño repaso.

2007-2011 agintaldian, alderdi Sozialistak akordio bat egin zuen alderdi Jeltzalearekin, eta haren ondoren berdintasunaren gaia PNVaren eskuetan geratu zela Alkatetzaren ordezkaritza legez; aitortu behar da ordezkaritza hori hil zorian zegoela, eta

En el mandato 2007-2011, prosigue, el Partido Socialista hizo un acuerdo con el Partido Nacionalista, por el que el tema de la igualdad quedó en manos del PNV como delegación de la Alcaldía; que hay que reconocer que esa delegación estaba a punto de morir, y como sólo existía la

Gizartekintza Batzordea zenez zegoen batzorde bakarra, gai guztiak batzorde horretatik pasatu behar zirela. Egoera horren aurrean Alkate jaunari hauxe planteatu zioten: gauzak borondatez eta errespetuz egin behar zirela edo, bestela, bere Taldeak ordezkaritza hura utzi egingo zuela.

Gauzek hobera egin zuten, dio Juez andreak, Emakumearen Mahaia eratu zen eta sarritan biltzen zen, eta gaur egun emakume-elkarte asko daude, Altzoa bezala, hasiera batean, ez zuelako ganorarik ikusten, Mahaian ez zegoena, baina, azkenean Mahaian sartu zena, edo Zafa, Lakasiun, Pagatxa, Hitzez, Mujeres al Cuadrado, Rompiendo el Silencio, Defiben, Lalua bezalako taldeak, eta inongo taldetan ez dauden emakume independenteak. Horrekin guztiarekin, Andretxearen lokala txiki geratu da.

Juez andreak jarraitu du esaten gaur egun Berdintasunerako Batzordeak batzorde legez funtzionatzen duela eta etorkizunari begira urrats garrantzitsuak eman direla: protokolo bat sinatu da, “herri debekatua”ren inguruko azterketa bat egin da, ikastaro eta lehiaketa asko egiten dira.

Comisión de Gizartekintza, todos los temas de igualdad tenían que pasar por esa Comisión; situación ante la que plantearon al señor Alcalde que, o las cosas se hacían con voluntad o respeto, o su Grupo dejaba la delegación.

Las cosas fueron a mejor, prosigue, la Mesa de la Mujer se constituyó y se reunía con frecuencia y hoy día hay muchas asociaciones de mujeres como Altzoa, que en un principio no estaba porque no veía fundamento, pero que se logró que acudiese, o Zafa, Lakasiun, Pagatxa, Hitzez, Mujeres al Cuadrado, Rompiendo el Silencio, Defiben, Lalua, y varias mujeres independientes; con todo lo cual el local de Andretxea ha quedado pequeño.

Continúa en su intervención diciendo que hoy día funciona la Comisión de Igualdad como Comisión propia y que se han dado pasos importantes de cara al futuro: se ha firmado un protocolo, se ha llevado a cabo un estudio de la “ciudad prohibida”, se hacen numerosas cursillos y concursos.

Gaineratzen du beraien iritziz oraindik bidea luzea dela, baina bide onean dagoela; politikarien erantzukizuna dela hori dena bermatzea, eta Udalaren funtzionamenduan transbertsalitatea handiagoa izan behar dela.

Añade que consideran que todavía el camino es largo pero que se está en el buen camino, que es responsabilidad de los políticos el garantizar todo esto y que hay que aumentar la transversalidad en el funcionamiento del Ayuntamiento.

Juez andreak dio geroxeago Plan handia eta aurreratua dela, baina, bestalde, egia dela baita oraindik asko dagoela egiteko III. Berdintasun Planaren ondorioetan.

Dice más adelante que es un Plan ambicioso y avanzado, pero que también es verdad que, en cuanto a las conclusiones del tercer Plan de Igualdad todavía hay mucho por avanzar.

Atentzioa ematen die, dio Juez andreak, Udaleko arlo guztietan berdintasun politiken inguruan dagoen ezezagutza eta desoreka, eta arlo horiek direla pertsonal teknikoarentzako erremintak eskatzen dituztenak, eta pertsonal hori dela konpromisoa bere gain hartu behar duena.

Les llama la atención, prosigue, el desconocimiento y desequilibrio de las diferentes áreas del ayuntamiento respecto a las políticas de igualdad, y son estas mismas áreas las que piden herramientas para el personal técnico, y es este personal el que tiene que asumir el compromiso.

Beraz –gaineratzen du Juez andreak– konpromiso politiko irmoa behar da, eta uste du horretan denak daudela ados, baina arlo batetik bestera dagoen sentsibilizazio-maila ezberdina denez, lan egin behar dela orekatu ahal izateko, eta Udalak osotasun bat bezala funtzionatu behar duela, norabide bakar batean.

Se necesita por tanto, añade, un compromiso político firme, en el que cree que todos están de acuerdo, pero teniendo en cuenta que el nivel de sensibilización es diferente en las áreas, hay trabajo a realizar para poder equilibrar, y que el Ayuntamiento funcione como un todo en la misma dirección.

Baieztatzen du emakumeen parte-hartzea geroz eta handiagoa dela, baina emakumeek Udaleko arlo guztietan parte hartu

Afirma que la participación de las mujeres ha sido cada vez más intensa, pero que

nahiko luketela, ez bakarrik Berdintasunarenean.

les gustaría participar también en las distintas áreas del Ayuntamiento, y no solo en Igualdad.

Amaitzeko esan du beraiek, politikari legez, eta gizarte osoak lan egin behar dutela balore-aldaketaren alde eta egunen batean Plan hauek beharrezkoak izan ez daitezen, iraganeko gauza bat bezala, gainditutakoa.

Finaliza afirmando que ellos como políticos, y la sociedad en general, tienen que trabajar por un cambio de valores y para que algún día estos Planes no sean necesarios; sino algo del pasado y superado.

Aguirre andreak dio bere Taldeak goitik beherako baietza ematen diola Berdintasun Planari, horren alde lan egin nahi dutela, eta batik bat, transbertsala izan dadila arlo guztietan eta erlazio-modu guztietan.

La señora Aguirre afirma que su Grupo apoya totalmente el Plan de Igualdad, que desean trabajar por él, y sobre todo, que sea transversal a todas las áreas y en todas las formas de relación.

Irizpena bozketan jarrita, aho batez onartu da.

Sometido a votación el dictamen, se aprueba por unanimidad.

Eta gainerako gairik ez zegoenez, zazpi eta hogeita hamabostean, Alkate jaunak amaiera eman dio bilkurari, eta horri guztiari, nik, Idazkari Orokorrak, fede ematen diot.

Y no habiendo más asuntos que tratar, y siendo las diecinueve horas treinta y cinco minutos, el Sr. Alcalde levanta la Sesión, de todo lo cual yo, la Secretaria General, doy fe.